



D Larresoro
Herriko etxetik hurbil den
aparkalekua

GPS : 626655 - 4803240

1.15 oren

Seinaletika
 D-tik **8**-rat

8,6 km

+178 m
-178 m

Hutsegin behar ez dena

- Bista panoramikoa
- Haritzak
- Zubi erromatarra

- Kasu egin bide mundrunatuetan
- Kasu egin RD 88 bidean

Bide profila





Larresoroko zubi erromatarra

Herriko itzuli handia eta paisaia edo giro miresgarriak eskaintzen dituen familia-ibilaldi atsegina.

Abiatzeko bidea :

Herriko etxetik, Ezpeletarako bide nagusia hartu 50 metroz eta autoa utzi eskuinaldean den aparkalekuan, supermerkatu ttipiaren ondoan.

Aparkalekutik **D** 626655 - 4803240, eskuinera hartu Ezpeletarantz. 400 metro urrunago, eskuinera hartu frontoia pasatu aintzin, eta lotizamendua zeharkatu etxalde batera iristeko. Bi haritz handien artetik pasatu **1** 626218 - 4802873 eta pareko landa hegietan murgiltzen den xendran segitu. Bide mundrunatura iritsi eta eskuinera hartu haritzen haranttoraino **2** 625641 - 4802390. Eskuinaldean den xendra hartu, piknika mahai handi baten aitzinetik pasatuz. Xendra hori erreka zeharkatzen duen zubi erromatarrera eta bide mundrunatura idekitzen da. Eskuinera hartu eta mendi gainetarako igaitea hasi (zailtasun nagusia, 70 metroko desmaila). Ordokira heltzean **3** 624454 - 4802999, Uztaritzerantz doan RD 88 bidea segitu eskuinaldean kilometro batez. RD 88 utzi eta etxalde batera **4** 624718 - 4803958 doan pista hartu eskuinaldean. Pistaren bukaeran, ezkerrean hartu bide mundrunatuan segitzeko, eta 150 metroan, eskuinaldean eta etxeto zombaitzuren aitzinetik **5** 625168 - 4804102 pasatzen den bide ttipia hartu. Oihanartean murgiltzen den pista harritsu baten itxura hartzen du bideak. Kasu egin, maldan behera doan bihurgune zerraturiko pista baita. Haranera buruz idekitzen da pista, Ospitalia **6** 625785 - 4804636 etxearen heinean. Konpostelako beilariendako lehengo ospitalea da etxe hura. Eskuinera hartu RD 20 bidera

iristeko eta 100 metro urrunago, lan eremutik zuzen joaiten den « Ospital Etxeberrikobidea » hartu. Bidearen bukaeran

beriz igaiteko (hilerriaren aitzinetik pasatuz). RD 20 bidegurutzean, eskuinera hartu eta 50 metro urrunago ezkerrean **8** 626540 - 4803694. Ondoren, ezkerrean den lehen karrika hartu, estadioaren aitzinetik pasatu eta ondoko bidegurutzean, supermerkatu ttipiaren heinean den herriko bide nagusira heltzeko karrika hartu ezkerrean. Aparkalekua 50 metroan da eskuinaldean.

0,6 km

1,42 km

3,46 km

4,45 km

5 km

6 km

7,27 km

7,8 km

8,6 km

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaletikak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziaz kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



VTT / VTC mendiko bizikleta ibilaldiak

Ibilaldi desberdinak zenbakien bidez markatuak dira. Zailtasunaren arabera kolorezko zenbakien bidez sailkatuak dira.

▶ Bide zabal eta erraza. Publiko guziaz ideoa, bizikletez ibil daitekeena.

▶ Xendra teknikoa. Ibiltari aditua, jakintza teknikoa beharrezkoa.

▶ Bide aski erraza. Noizbehinka bizikletez ibil daitekeena.

▶ Xendra biziki teknikoa. Teknikoki zein fisikoki, maila konfirmatua eskatua.

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR [®] -en xendrak	GRP [®]	GR [®]	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR[®], GRP[®] eta PR[®] Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira. Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR[®] labelaren pean.

Bideen GPS helbideak

Erreferentziazko neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

- ▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com
- ▶ Europako urgentziazko deia 112
- ▶ Zuen segurtasunarentzat, balizak dituzten bideak hartu eta ibilaldien zentzuak errespetatu.
- ▶ Zuen gaitasunak ez soberetsi, eta kasu guzietan zuen abiaduraren jabe izan.
- ▶ Zuen segurtasunarentzat, kaskoa ez ahantz.
- ▶ Hornidurak, edariak eta jantzi egokiak hartu.
- ▶ Izan kortes eta zuhur beste ibiltariak pasatu edo gurutzatzean.
- ▶ Mendiko bizikletariak badaki ibiltariak lehentasuna duela eta errepide kodea errespetatu behar duela.
- ▶ Jabego pribatuak eta laborantza guneak errespetatu, hesiak berriz hetsi.
- ▶ Laborantzako eta oihaneko mekanikei kasu eman, haien zirkulazioa ez trabatu.
- ▶ Abere basak ez trabatu.
- ▶ Zuen hondarkinak atxiki, diskretua izan eta izadia errespetatu.
- ▶ Bakarrik joaiten bazarete, zuen ibilbidea komunikatu ingurukoei.
- ▶ Zuen ateraldiak elikatzeko, profesionalekin harremanetan sartu.

Kasu !

Uso ehiza garaian (urritik azarorat), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorat), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira, atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitera gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.
Ecoveille[®] orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille
Ecoveille[®].behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.



Xehetasun gehiagorentzat:
Ezpeletako Turismo Bulegoa
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Ezpeleta - Tel : 05.59.93.95.02
Mail : espelette.tourisme@wanadoo.fr - Web : www.espelette.fr



www.rando64.fr

oinez, mendiko bizikletez edo zaldiz, Biarnoa eta Euskal Herria deskubritu!